

EUSKALDUN BIKAIÑ BAT.¹



«Valiente en obras y en palabras mudo.»
Tirso de Molina.—La prudencia en la mujer.

I.

¡Urola! Aranzazu-ko mendi, Birjiña Mariak bedekatutakoetatik jeisten zerana, zure ur garbiakin gure Gipuzkoa maiteko ibar ederrak bustirik, Kantauriko itsasoarekin Zumayan batutzeko! ¿Zenbat oroitza ez dituzu gordetzen? ¿Zenbat gizon argidotar ez dira jostatu aurchóak ziranean, zure inguruko zelayetan? Ignazio Santua, gure Patroi maitagariya, bere Loyolako echeatari, eta zure ispillu garbiyan pintatzen diran kanpo galai eta loretsuetan: Iriarte Azkoitiarra, denborarekin eunean lurreko mirari ta edertasunak maisuki antzestuko zituen, bere jaioterriko malda eta zugaztietan: Zumarragan oraindik ikusten dan *Jauregi* deritzaion eche gogoangarriaren atarian Migel Lopez Legazpikoa, lan goitsu eta miraritsuetarako jayotako gizona: Aizarnazabalaldean, ariztiz estalirik ibai-aldera datorren mendimuño baten azpian ageri dan eche zabal baten ondoan, Baltasar Echabe-koa, España Berriaren izenarekin orduan ezagutzen ziran tokietan izen eta omen aundia irabazi bear zuena, ala bere izkribu nola bere pinturakin, eta bere euskaltasuna agertzeko eta aditzera emateko zenbat maite zuen, an zure ertzean eta zure murmurak entzunik ikasi zuen izkuntz eztiya, Euskera zar denbora ayetan bazterturik zegoenari liburu bikañ bat donkitu bear ziona.... ¿Eta beste zenbat orlako, gure lumak orain aipatzen ez dituenak?

(1) Leyenda premiada con *accésit* en los Juegos florales euskaros celebrados en esta ciudad en 1890.

II.

Bazijoan amabostgarren eunkia. Orduan Españian ziran gertaerak, arriturik zeukaten mundua. Non nai Españarrak agertzen ziran tokietan, miresten ziran beren azaiñ arrigarriak: Itsasoko laño ta brumak izuturik, desegiten ziran, Euskaldun-itsas-gizonen ausardia ikustean. Bata bestearen ondoren bazijoazen oek sekula iñork ezagutu gabeko itsas-bazterrak arkitzen. Ez beroak, ez otzak atzeratzen zituen. Sartzen ziran batzuetan elurrez eta jelaz inguratutako lekuetan: joaten ziran besteetan berun urtuak bezela eguzkiak berotzen zuen tokietara. Zala batzuek dioten bezela, arrantzaren bitartez aberastu naia, zala, nik uste dedanez, beren biotzak gauza aundietarako sentitzen zuten mugiera bizia, dakiguna da, ayen ausardiari eskerrak munduaren mugak zabalitzen zijoazela. Anima denetan arkitzen zan orduan gertaera arrigarriak izango ziran ustea: bazirudien zeruan izkribaturik ikusten zutela zerbait.

Denbora ayetan, Granadara bazterturik gelditzen ziran mairuak iya Españiatik bota zituztenean, eta Domenjon Andia-ri eta Erregiak artutako neurri onai eskerrak, Oñaz era Ganboa-tarrak paketurik zeudenean Euskal-lurrean, bizi zan Zumarragan, Urola-ibayaren inguruko Areizaga zeritzaion eche purubetarrean, mutill-koskor bat alaiya, pizkorra, adimentu argi eta begi argiyagoduna. Danik eta gauzik chikienetan ere azaltzen zuen beti bere biotzaren nobletasuna, eta begiyak dizdiz egiten zioten Areizaga-ko echera noizik beñ iristen ziran berri miragarriak aditzean. Esan zitekean mutill chiki ark sentirzen zuela bere barrenean zerbait gauza berezia, añ kontu arrigarriak entzuten zituen orduan: arako gauz andietarako barrendikako dei bat bezela.

Zan mutillchoa, berez eleizarakoya, eta azitzen zijoan bezela aditzera ematen zuen apaiz egin nai zuela. Bazuen lagun bat, erri bereko echerik ospatsuenetakoa, ezertan Areizaga chikiarekin ondo etzeterrena. Areizaga zan toki berriak arkitu eta irsasoarekin burruka zebiltzan gizonen mireslea; zerizkion ura zala umantasunarentzat neur-lekurik onena: besteak ez; gerran, gizonak gizonen kontra uste zuen geyena goratu zitezkeala.

Bazijoazen urteak, eta urteakin ere bai, gertaera arrigarriak uga-

ritzen. Granadan sartu ziran kristauak, ainbeste eunkitan mairuak nausi izan ziran dorreetan zabaldu zan Españiko bandera ederra, eta toki choragarri ayek bedeinkatzeko zabaldu zituen bere besoak Gurutze Santuak: itsaso illuntsua¹ esaten ziotena igarorik, Kolon ezillkorrak arkitu zituen lur berriak, izan zitezkean choragarri eta ederrenak: Españiko gerrari bikaiñak, ez izanik berentzat naikoa Españiako lurra, sartu ziran Afrikara mairuak aurrean zeramazkitela non-nai, eta joan ziran Italiako lurbira miraritsuetara, eta an ere utzi zuten beren indar eta portiztasunaren siñalea; eta... ¡a! ¡tristura ematen dio euskaldunari kontatzeak! baña egia da, ta konta dezagun, eta ikasi ere bai zér egin bear dan batek bere burua galdu nai ez duanean.... Nafarroan ere sartzen ziran Gaztelauen gerrari-samaldak eta piškaka piškaka labur-tzen zituzten Erresuma omentsu aren mugak, eta Gaztelauai laguntzen zioten lan orretan Gipuzkoatarrak, begiratu gabe Nafarrakin zeukaten anaitasuna, ayek eta berak izkuntz bat zutela, jatorri bat, eta obi bat bear zutela ere, seaska bat zuten ezkeroz. Nafarroaren kontra joan ziran Gipuzkoatarren artean an zihoan len aipatu degun Areizagaren adiskidea, ez gorrotoz, ez Nafarrai borondate charrik zielako, baizik martitzen aunditasunak choraturik. ¡Beste zenbat joan ote ziran ala, eta sekulako obira bota ote zuten Nafarroako Erresuma noblea, Euskal-lurraren nagusi eta buru izan bear zuena!

Bitartean ¿zér egiten zuen Areizagak?

Utzi zituen gaztechoa zalarik Urolaren ertzak, eta joan zan apaiz egiteko bere ikasbideak segitzera. Ordendu zan; bere echekoak nai zuten Zumarraga-ko choko gozoan gelditzea; baña berak uste zuen urrutiyetan serbitzo geiago egin zezakeala, batez ere orduan ainbeste anima Kristoren Legea ezagutzen etzutenak Mundu Berrian arkitzen ziranean.

Joan zan Areizaga, orduan Amerikarako jende guztia biltzen zuen Sebilla-ko uri galantera. An ezaguera egin zuen Euskaldun askorekin; an ikusi zituen gero sekuletako kondairak maitero gordeko zituen gizon aundiak: Elkano, munduari lenbizi inguruak neurtu bear zizkion: Urdaneta, lan guzietan miragarria, ala itsasoan nola leorreen, ala lenmenak menderatzen eta itsasoaren erditik bide zuzena arkitzen, nola bere antuste guziak azpiratzen, eta Zerurako bideari umillki jarraitzen: Martín Iñiguez Carquizano, Elgoibar-tarra, itsaslanetan zér egin bear zan ongi zekiena.... eta beste asko.

(1) Mar tenebroso.

Sebillan zegoela, moldatu zan Koruñan ontzi-talde bat, Moluka zeritzayen ugarteetara joan zitezen, Elkanok gidaturik, bada chit denbora guchi zala, Getariar ezillkor au etorri zan mundu guztia inguratuturik. Moldatu zanean ontzi-talde ori, bereala eskatu zuten an zijoaizen Euskaldunak, Areizaga etorri zedilla kapillautzat ontzi aetako batera; eta ala etorri ere zan.

¿Zer gertatu zan gero? Utzi zayogun kondairari esan dakigun. Kondairaren arrigarritasuna añ da aundia puntu ontan, non ezin liteke biursakintzik egokienaren bitartez ere obeto goratu Areizaga-ren biotz aundia.

III.

Joan zan Areizaga Koruñara. Sartu zan Santiago zeritzaion ontzian, eta bide guzian agerturik bere biotzaren aunditasuna, segi zuen beste ontzien lagundian. Magallanes-en izena zeraman itsas-biderairichi ziranean, Areizaga izaten zan beti portu berriak ezagutzen joaten ziranetako: bere bizia emateko prest zegoen beti, bere lagunen biziak salbatzeko. Ontzi-talde ark izan zituen milla doakabe. Loaisa Buruzaria galdu zitzaioten bere ontziarekin. Elkano, aren ondorengo, ill zan *Itsaso Paketsuan*;¹ beste ontzi guztiak sakabanatu ziran; ekaitzak bota zituen bakoitza alde batera; eta orduan arkitu zan *Santiago* zeritzaiona itsaso zabalaren erdian, zér janik iya bertan zijoaizenak etzutela. Beren iritzian 2.200 legua bide zeukazkiten *Lapurren Ugarteetara*;² ala pensatu zuten Hernando Cortés-ek orduan denbora guchi zala arkitu zituen lurretara inguratzea.

Izan zituzten bidean milla perill eta estuasun: beñ baño geyagotan pensatu zuten sekulako ondatuko zirala; baña noizik bait ikusi zuten leorra, eta leorrean jendea eta kea; ordea eziñ leorreratu izan ziran. Jarrai zioten beren bideari, nora zijoaizen etzekitela, eta alako batean gelditu ziran, ugolko aundi batean aingurak botarik. Etzuten chalupik lurrera joateko: zér jan ta eranik etzuten: geroago ta aulago zeuden.

Orduan erabaki zuten beretako bat kaja batean sarturik, joan zedi—

(1) El mar Pacífico.

(2) Las islas de los Ladrones.

lla leorrera. Eta Areizaga izan zan bereala, artarako bere burua eskeñi zuena. Esan zioten ezetz; baña beretzat nai izan zuen neke latz ura; etzuen nai beste iñoren bizirik galtzea.

Sartu zan kajan; eta urak bazeraman piškaka piškaka. Sortitzaren legeak eziñ utzi zezaketen kaja ura joaten, eta jira-bira egin zuen. Erori zan Areizaga urtara, eta igeri asi zan. Leorra urruri zegoen; baña Areizagaren anima aundia etzan batere argaltzen. Biotza Zerura jasorik, eta bere lagunuen biziak salbatzeko neke guziak ariñak zerizkiela, segitzen zuen igeri. Baña indárrak etziran anima beziñ aundiak: eta nekatu zan chit. Iya itorik ikusi zutenean, leorreat zeuden *indio* batzuek saltatu ziran urtara, eta atera zuten Areizaga leorrera.

Onek ikusi zituenean bere inguruan eman zien aditzera bere eskertasuna, eta kajan zeramazkien jostallu batzuek eman nai izan zizkien. Indioak etzituzten artu, eta joan ziran Areizagarekin mendi-muño loretsu eta ibar ederrak igarorik erri aundi batera, non nagusiak chit ongi artu zuen Gipuzkoatar argidotar ura. Onek ikusi zuenean lurrean sarturik egurrezko Gurutze bat, belaunikaturik adoratu zuen.

Millaka indioak, ere, belaunikatu ziran bere modura Gurutzearen aurrean. ¡Ura bauza ikustekoa! Etzan chorien kantua besterik aditzen; baña biotzetatik ateratzen ziran zizpuruak, ziran musikarik gozo ta eztieta. Illuntasun tristetik Fede Santuko argira jaiotzen dan erri baten musika zerukoya zan ura: isilla, zergatik ez da mingañean itzera egokirik añ gauza andiak aditzera emateko; zerukoia, zergatik ez dute lurreko gauzak iñoiz moldatu aiako batots leun eta biguñik.

Indioak lagundurik itzuli zan Areizaga bere ontzira, eta bertan gelditu ziranai eraman zien zér jan ta zér edan.

Ala bere umantasunarekin, eta batez ere, bere karidadearekin, zergatik karidade gabeko umantasuna, umantasun tristea da, salbatu zituen Areizagak ainbeste gizonen bizitzak.

¿Zér ajola zion, ortarako Sortitzaren Legeen kontra joan bearrak? Sortitzaren lege guziez gañetik dago gizonaren anima, Jaunak erakusten dion bideari jarraitu naiak mugitzen duenean.

¡O nere Gipuzkoa maitea! ¡Zeiñ aundia agertzen zeran nere begien aurrean, zure seme argidotarretan pensatzen dedanean! Oen artean ez da chikiena Areizaga, naiz ta berak, umiltasunaren indarrez, bere egitekorik geyenak gorde ta ezkutatu. Len aipatu degun gertaera ezkeroz zér egin zuen ez dakigu: ala isiltasun eta illuntasunak, oraindik eta geiago jaikitzen dituzte bere birtute ta doaiyak,

Baña gertaera ura aski da *Eleazar* Españiarraren izena merezi izateko.

.....

Bitartean ¿zer egin zuen onako Zumarragako beste galai gazte ark? Joan zan Italiako gerretara, eta an ill zan beste asko bezela.

¿Zebatez ederragoa dan Areizagaren omena! ¿Zér gauza aundia-go ta umantsuagorik besteren biziagatik berea arriskuan ipintzea baño? Eta orren ondoren, ¿ezer egin ezpalu bezela isiltasunean gordetzea bere azaiñ miragarriak? Orregatik esan zuen Tirso de Molina zeritzaion biursari gañ-gañekoak, Euskalduna zala egiten bulardetsua, mintzatzen isilla. «*Valiente en obras y en palabras mudo.*»

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

PROPÓSITO DE ENMIENDA.

Yo no sé por qué los cocheros en general tienen fama de borrachos, cuando en el gremio, como en todas las profesiones, habrá individuos que no prueban más que el agua.

Pero ello es que si decimos de un auriga que va *alcoholizado*, la gente encuentra muy natural la cosa y estima circunstancia inherente al *elevado* cargo que este ocupa.

El irascible Juanuco las cogía á todas horas, en el pescante, á pié, por la mañana y por la tarde.

La taberna era, para él, el templo de la alegría y las *papalinas*.

Mientras su desvencijado coche enganchado á escuálido jamelgo no estaba ocupado por el público, que era la mayor parte del dia, entraba nuestro hombre en la cantina más próxima á la parada y se pasaba las horas muertas empinando el codo.

El resultado de sus diarias libaciones motivaba que entrara por las noches en su casa completamente beodo y que por primera providencia arrimase á su pobre mujer un gran pié de paliza, causando el escándalo del vecindario.